



EUSKADIKO
ORKESTRA

AE[♩]S
Asociación Española
de Orquestas Sinfónicas

Fundación BBVA

FEVAS
Plena
inclusión
Euskadi



SOINU MOSAIKOA

PROIEKTUA

Euskadiko Orkestra Sinfonikoan

“Soinu Mosaikoa”, Euskadiko Orkestra Sinfonikoaren eskutik. Proiektuaren gakoak:

1. Adimen edo garapen urritasuna duten 19 pertsonekin ari gara lanean. Aspace, Gautena eta Uliazpi elkarteetako kideak dira.
2. Urtebete zehar, soinu-zko sorkuntzaren inguruko tailer bat egin dugu hilean behin.
3. Tailerretan gidari dira Beatriz Linares biolontxelo-jotzailea, Elena Martínez de Murguía biola-jotzailea eta Xabier Sarasa tronpa-jotzailea; Orkestrako beste hainbat musikariren laguntza dute, horien artean, Cristina Vértiz, Maialen Rezabal, Carlos Rosat, Juan Ignacio Emme, Irene Echeveste, Arnaud Mandoche eta Christophe Sánchez.
4. Partehartzaileak dira: Endika Markotegi Egia, Gorka Casares Pinzolas, Nerea García Prado, Raúl Oteiza Muro, Rafael Ruiz De Garibay, Koro Alonso Santamaría, Javier González Pérez, María Luisa Iturralde Revuelta, Idoia Berakoetxea Usandizaga, Juan Marcos Echenagusia Nieto, Alejandro Sainz de Vicuña Dorado, Aitor Arambarri Paredes, Imanol Timón Aramburu, Martín Eseberri Sarasola, Ainara Luque Sabeiro, Amaia Peñalba Alayo, Beatriz González Arana, Jon Etxepeteleku Espinosa, Juan Ordoñez María.
5. Euskadiko Orkestra Sinfonikoak Abonu Denboraldian eta Musika Familian zikloaren baitan aurkeztuko du “Soinu Mosaikoa” egitasmoaren emaitza.

“Soinu Mosaikoa” proiektuaren sorburua, Euskadiko Orkestra Sinfonikoaren eta FEVASen arteko lankidetzan.

“Soinu Mosaikoa” egitasmoak bere sorburua eta aurrekari argia ditu Euskadiko Orkestra Sinfonikoaren eta Adimen edo Garapen Urritasuna duten Pertsonen Elkartearen Euskal Federazioaren (FEVAS) arteko lankidetzan. Erabateko gizarteratzearen alde, 2009. urtetik bi erakunde arteko batasuna gauzatzen da urtero bestelakotasun funtzionala duten pertsonak protagonista dituzten egitasmoetan; testuinguru horretan, Bilbo eta Donostian tailerrak egiten dira elkarte ezberdinekin elkarlanean eta Orkestraren Miramongo egoitzan kontzertuak izaten dira elkarteetako kideentzat eta horien familientzat. 2010. urtean, jarduera horiek “Praktika On” izendatu zituen FEAPSek, Adimen ezintasuna dutenen aldeko Elkartearen Espainiar Konfederakuntzak.

2013an, urteotan lankidetzan jardun izanaren eskarmentua abiapuntu bihurtu zen “Soinu Mosaikoa” proiekturako. **Aurten estreinakoz, estatu mailan 14 orkestra sinfonikora zabaldu da musika giza garapenerako eta gizarteratzeko tresna bilakatzen duen jarduera aitzindari hori, Orkestra Sinfonikoen Espainiar Elkartearen (AEOS), Plena Inclusión Federazioaren (horren kide da FEVAS) eta BBVA fundazioaren eskutik.**

“Soinu Mosaikoa” proiektuaren garapena Euskadiko Orkestra Sinfonikoa + FEVAS

Euskadiko Orkestra Sinfonikoak eta FEVASek euren elkarlanaren jarraipen gisa planteatu zuten “Soinu Mosaikoa”. 2015. urtean zehar, egitasmoaren lehenbiziko fasea osatu zen: hautatutako FEVASeko kideekin lana Orkestrako zein musikarik gidatuko zuten erabaki ostean, lanerako dinamikak finkatu eta ondoren egin beharreko Soinuzko Sorkuntza Tailerrak taxutu zituzten. Proiektuaren garapena bideratu duten musikariak dira Elena Martínez de Murguía, biola, Beatriz Linares, biolontxelo eta Xabier Sarasa, tronpa.

Tailerretan

2016ko urtarrilaren 15ean, Orkestraren Miramongo egoitzan ekin genien Soinuzko Sorkuntza Tailerrei. Horietan parte hartu duten bestelakotasun funtzionala duten 19 pertsona: Endika Markotegi Egia, Gorka Casares Pinzolas, Nerea García Prado, Raúl Oteiza Muro, Rafael Ruiz De Garibay, Koro Alonso Santamaría, Javier González Pérez, María Luisa Iturralde Revuelta, Idoia Berakoetxea Usandizaga, Juan Marcos Echenagusia Nieto, Alejandro Sainz de Vicuña Dorado, Aitor Arambarri Paredes, Imanol Timón Aramburu, Martin Eseberri Sarasola, Ainara Luque Sabeiro, Amaia Peñalba Alayo, Beatriz González Arana, Jon Etxepeteleku Espinosa eta Juan Ordoñez María. Aspace, Gautena eta Uliazpi elkarteetako kideak dira.

19 pertsona horietatik, batek musika ezagutzak ditu eta apartitura bat irakur dezake, beste batek txikitatik pianoa jotzen du belarriz eta beste hirugarren batek akordeoia jotzen du, horrek ere belarriz. Gainerako 16 partehartzaileek ez zuten aurrez musikarekin inolako loturarik eta hutsetik hasi ziren.

Ordutik, hilean behin bildu gara, gutxi gora-behera hiru orduko iraupena izan duten topaketetan. Elkarrekin, musika instrumentu sinfoniko zein ez sinfonikoen aukerak esploratu ditugu (biolina, txeloa, teklatuak, akordeoia, marakak, euri makilak, kanpaiak, klabeak, triangelua, tinbalak, ...) eta eta baita inprobisazioak egin ere: ahozkoak, erritmikoak, instrumentuekin eta abar. Jardunaldi bakoitza jolas eta beroketa ariketak eginez hasi dugu eta, ondoren, pertsona bakoitzaren gaitasunak aztertu ditugu –egokiago zaizkien instrumentu nahiz tinbreak, pultso erregularra mantzentzeko edo zuzendariaren aginduak jarraitzeko duten gaitasuna, esaterako-. Behaketa horren arabera erabaki da partehartzaile bakoitzak zein instrumentu joko duen kontzertuetan. Eta lan-prozesuan aurrera joan ahala, mikro-lanak sortu ditugu “La flor más grande del mundo” (munduko lorerik handiena) partiturako elementu erritmiko, melodiko zein harmonikoak oinarri hartuta. “La flor más grande del mundo” musika lana Emilio Aragónek sortua da.

Elena, Beatriz eta Xabierren eskuhartzeaz gain, egitasmoan parte hartu dute, halaber, Euskadiko Orkestra Sinfonikoko beste hainbat musikarik; horien artean, Cristina Vértiz, Maialen Rezabal eta Irene Echeveste (biolinak), Carlos Rosat (flauta), Juan Ignacio Emme (biolontxelo), Arnaud Mandoche eta Christophe Sánchez (tronboiak).

Tailerretan ahalbidetu da partehartzaile bakoitzak, soinuen bidez esploratu eta jotzeaz gain, soinu horiek komunikatzeko tresna bihurtzea. Gainera, arreta berezia jarri dugu norberak musikarekin inprobisatu eta jolas egitean. Zentzu horretan, bilakaera egundokoa izan da.

Azken tailerra da abenduaren 20 asteartean egindakoa.

Orkestrarekin

Tailerrak amaitu ostean, proiektuko 19 partehartzaileak Orkestrako organikoan murgilduko dira eta musikari guztiekin batera entseatuko dute urtarrilaren 24tik aurrera, kontzertuak prestatu asmoz.

Kontzertuan, Euskadiko Orkestra Sinfonikoko musikariekin nahasturik, partehartzaileek bat-bateko hainbat saio egingo dute; horrela, “La flor más grande del mundo” lan sinfonikoarekin bat egingo duten atmosfera eta ehundurak sortuko dituzte. Inprobisazioei eta obra sinfonikoari José Saramagoren izenburu bereko ipuina gehituko zaie; partehartzaileetako batek euskaraz kontatuko du, Jon Gómez Garai aurkezlea lagun duela.

Orkestrarekin entseguen egutegia:

Abonu kontzertuetarako entseguak

Urtarrilaren 24tik 26ra, 10:00etatik 13:00etara, Miramongo egoitzan. Donostia.

Urtarrilaren 27a: Entsegu Orokorra. 11:00etatik a 14:00etara, Kursaal Auditoriumean. Donostia.

Musika Familian zikloko kontzerturako entseguak

Otsailaren 3an, 16:00etatik 20:00etara, Miramongo egoitzan. Donostia.

Otsailaren 4an, entsegu Orokorra, 11:00etatik 14:00etara, Kursaal Auditoriumean. Donostia.



Kontzertuak: “Soinu Mosaikoa” Abonu Denboraldian eta Musika Familiar zikloan

Euskadiko Orkestra Sinfonikoa da “Soinu Mosaikoa” proiektuaren emaitza, Abonu Denboraldian programatzeaz gain, bere Musika Familiar zikloan txertatuko duen orkestra bakarra, Kursaal Eszenarekin lankidetzan eta El Diario Vasco-k babestua. Orkestrak horrela egin du zinez uste duelako aldaketarako gailua dela, edozein adinetako pertsonengan gizarte inklusiboa sortu beharraren kontzientzia sortzeko baliagarria.

Azpiragarri da, Musika Familiar zikloaren baitan otsailaren 4an izango den kontzertua bereziki pentsatua dagoela publiko ororentzat. Musika eta narrazioa zeinu lengoaiara transkribatuko ditu Ainhoa Moiuak. Gainera, Zuriñe Hidalgo aktorea ere ariko da emanaldi horretan.

Kontzertu egutegia:

▪ Abonu Denboraldia

Kursaal Auditoriuma. Donostia.

2017/01/27, ostirala. 20:00etan.

2017/01/30, astelehena. 20:00etan.

> **Sarrerak** 7€tik gora, www.euskadikoorkestra.eus, www.sarrerak.kursaal.eus, Kursaaletako leihatilan.

Principal Antzokia. Gasteiz.

2017/02/02, osteguna. 20:00etan.

> **Sarrerak** 7€tik gora, www.euskadikoorkestra.eus, www.principalantzokia.org, Principaletako leihatila (945 16 10 45).

Egitaraua

L. V. Beethoven: Piano eta orkestrarako 4. kontzertua

E. Aragón: Munduko lorerik handiena

P.I. Tchaikovsky: Romeo eta Julieta

Ainars Rubikis, zuzendaria

Nicholas Angelich, pianoa

“Soinu Mosaikoa” proiektuko partehartzaileak

Jon Gómez Garai, aurkezlea

Euskadiko Orkestra Sinfonikoa

▪ Musika Familiar

Kursaal Auditoriuma. Donostia.

2017/02/04, larunbata. 19:00etan.

> **Sarrerak** 7€ eta 3€ (< 12 urte) www.sarrerak.kursaal.eus, Kursaaletako leihatilan

Egitaraua

E. Aragón: Munduko lorerik handiena

P.I. Tchaikovsky: Romeo eta Julieta

Ainars Rubikis, zuzendaria

“Soinu Mosaikoa” proiektuko partehartzaileak

Jon Gómez Garai, aurkezlea; Zuriñe Hidalgo, aktorea; Ainhoa Moiu, zeinu lengoia

Euskadiko Orkestra Sinfonikoa